

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Atal honetan, bezeroarekin edukiko dugun harremana deskribatuko dugu: zer harreman mota edudiko dugun, gurekin kontaktuan nola jarri daitezken, gure webguneari buruz hitz egingo dugu, laguntza pertsonala eskainiko dugun...

Gure gimnasioan, beti egongo da norbait bezeroei laguntzeko. Beraiekin edukiko dugun harremana gertukoa izango da bertan, gure bezeroek sarreran eta baita gimnasio barruan, beti langileren bat izango dute laguntzeko prest. Oraindik bezero ez direnentzat eta gure zerbitzuan interesatuta daudententzako, sarreran beti langile bat egongo da gure zerbitzuari buruz informazioa eskaintzen. Bertan, bezero berriei konfiantza transmititzea da helburua eta informazioa eskaintzerako orduan, gertutasuna adieraziko dugu.



Gure bezeroei dagokienez, hau da, jadanik bazkide direnak, dituzten kezkek edo zalantzak argitzeko, gimnasioko telefonora deitu dezakete. Telefonoz, bezero berriei bezalako harremana eduki nahi dugu, hau da, konfiantzazkoa eta segurtasunezkoa. Hala ere, webgune bat izango du gure gimnasioak, bertan nahi duten informazio guztia eskuratzeko. Honela, hauekiko fideltasuna lortu nahi dugu, ahalik eta harreman estuena lortuz.

Baita ere, laguntza pertsonala, hau da, entranatzaile pertsonalak eta monitoreak eskainiko ditugu. Gimnasioan zehar hainbat kiroletako espezialistak egongo dira berezeroei lagundu ahal izateko, adibidez, beraien helburuak lortzeko zer ariketa mota egin, lesionatuei errekuperatzen laguntzeko eta noski, kirolariek ahalik eta entrenamendu konpletuak lortu ahal izateko.

Esandako guztiarekin, gure bezeroekin erlazio estu bat edukitzea da gure helburua. Beraiek gustura eta eroso sentitzeko ahalegina egingo dugu, guretzako oso garrantzitsua delako ariketa fisikoa egiterako orduan gure kirolariak motibatuta eta babestuta sentitzea.

